



KIROL-TEKNIKARIEN ESKOLA ASFEDBI KIIB
CENTRO AUTORIZADO DE ENSEÑANZAS DEPORTIVAS
Nº CÓDIGO CENTRO: 48019390

ESKOLA-KIROLEKO MONITORE LAGUNTZAILEAREN IKASTARO OFIZIALA

15. DEIALDIA

(1. MAILAKO ENTRENATZAILE IKASTAROKO BLOKE KOMUNAREN BALIOKIDEA)

ESKOLA-KIROLEAN MONITORE LAGUNTZAILE-LANAK EGIN AHAL IZATEKO ADIERAZITAKO IKASTARO OFIZIALA. 60 ORDUKO ONLINE PRESTAKUNTZA-IKASTARO BAT DA, KIROL PORTAERAREN OINARRIEI, LEHEN SOROSPENEI, GORPUTZ JARDUERA EGOKITUA ETA EZGAITASUNA ETA KIROL-ANTOLAMENDUARI BURUZKO EDUKIEKIN.

(SARTZEKO BALDINTZAK: 16 URTE IZATEA + DBH ZIURTAGIRIA EDO BALIOKIDEA)

JARDUERA MOTA: Online-ko formakuntza.

KIROLAREN ARLOA: Kirol arloko pertsonentzako prestakuntza.

HARTZAILEAK: Prestakuntza ofizial gabeko eskola-kiroleko teknikariak. Kiroleko prestakuntza profesionala hasteko interesa duten pertsonak. Email bitartez aurkeztu beharrezko dokumentazioa, 5 dokumentu PDF formatuan (ez da argazkirik edo bestelakorik onartuko):

- Izen emate orria. ([deskargatu](#))
- Baimen informatua. ([deskargatu adinez nagusiak](#)) ([deskargatu 18 urtetik beherakoak](#))
- NANaren fotokopia bi aldeetatik.
- DBH gainditu izanaren ziurtagiria edo baliokideak. QR kodea ([IKASGUNEA](#)) duen ziurtagiririk izan ezean, aurkezten den dokumentua konpultsatua izan beharko da.
- Izena eman dutenek, gainera, zinpeko aitortpen bat aurkeztu beharko dute, kirol-titulu ofizialik ez dutela adierazteko.

([adibidea](#))

Zentroak aurreko dokumentazioa konparatu arte, EZ da hurrengoa bidaliko:

- Matrikula ordaindu izanaren [ordainagiria](#).

IZEN-EMATEAK: 2024ko [apirilaren 1etik 14ra](#), 23:59 arte (biak barne). (Izena emateko dokumentazio guztia adierazitako epearen barruan bidali behar da.)

SARBIDE FROGAREN EGUNA ETA ORDUA: 2024ko [apirilaren 19an](#) (ostirala), 16:00etatik 18:00etara. (IKUS ERANSKINA). **Izena emateko dokumentazioa egin eta aurkeztu ondoren esleitu da ordu zehatza.**

ON-LINE IKASTAROAREN HASIERA: 2024ko [apirilaren 23an](#) (asteartea). Ikasleak mezu elektroniko bat jasoko du ikasturtearen hasieran, plataformara sartzeko.

OHIKO AZTERKETA (Beraz, PLATAFORMAREN ITXIERA): 2024ko [maiatzaren 24an](#) (ostirala), 17:00etan 18:30etara.

EZOHIKO AZTERKETA (ohiko deialdian gainditu ez diren moduluak): 2024ko [ekainaren 26an](#) (ostirala), 12:00etan 13:30etara.

SARBIDE PROBA ETA AZTERKETA PRESENTZIALAK EGITEKO HELBIDEA: Kirol Etxea, Martin Barua Picaza kalea 27, Behea, 48003 Bilbao.

HIZKUNTZA: Euskara / Gaztelania.

GARRANTZITSUA: Nahitaezkoa da DBH gainditu izanaren ziurtagiria edo QR kodea duten baliokideak (**Ikasgunea**) aurkeztea. QR ziurtagiria ez izatekotan, aurkeztu beharreko titulazio akademikoak behar bezala konpultsatuta egon behar dira. (Konpultsa egiteko moduak: administrazio publikoak, Kirolaren Euskal Eskola, udalak, notarioak...).

BIZKAIKO FORU ALDUNDIAK DIRUZ LAGUNDUTAKO IKASTAROA. gutxienez %60ko diru-laguntza ematen du amaitutako eta gainditutako ikasturte bakoitzeko, %15a gehituko da ikastaroa euskaraz egiten bada. *2023-2024ko kirol prestakuntza gainditu duten kirol teknikarientzako bekak*. <https://ataria.ebizkaia.eus/es/catalogo-de-tramites-y-servicios?procID=2189>

ORDUTEGIA: astelehenetik ostegunera 9:30etatik 18:30etara, eta ostiralean 9:30etatik 15:30etara.

HELBIDEA: CAED KIROL-TEKNIKARIEN ESKOLA ASFEDEBI KIIB (Martin Barua Picaza zk. 27, behe, 48003 Bilbo (Bizkaia)).

PLAZA KOPURUA: 120 (30 pertsona talde bakoitzeko).

PREZIOA: 80 €. Ikastetxeak ikastaroan izena emateko baldintzak betetzen direla egiaztatu ondoren, ASFEDEBI-KITEBen kontu zenbaki honetara ordainduko da: **ES70-2095-0360-10-9117551621 (Kutxabank).**

NAHITAEZKOA DA IZEN-ABIZENAK KONTZEPTUAN ADIERAZTEA.

OHAR GARRANTSITZUA: Behin izena emanda ez da bueltatuko matrikularen ordainketa.

Matrikula egiteko behar den dokumentazio guztia honako helbide honetara bidali: monitoreak@asfedebi.eus

ERANSKINA SARRERA FROGAK (Prestakuntza-plana: BOE-A-2013-3262)

Berariazko baldintzak:

Frogak bi ariketa ditu, instalazio espezifikoan, oinarrizko kolpaketa teknika erabiliz, joko-tresnen gutxieneko nagusitasuna erakusketa. Ezinbestekoa da 2 ariketak gainditzea gai izateko.

Sarrera-probaren egitura:

- Lehenengo Proba: Jaurtiketa eta itzulketa menderatzea

Probaren garapena: izangaiak pilota frontisaren aurka bota eta frontisaren aurka itzultzen du, posizio beretik jotzen, edozein beso erabiliz. Ikasleak fronteniseko erraketa erabiliko du.

- Bigarren Proba: Piloteoaren menderatzea

Probaren garapena: Piloteoa frontisaren aurka, edozein beso erabiliz. Ikasleak fronteniseko erraketa erabiliko du.

Izena emateko prozesuarekin lotutako zalantzak/kontsultak:

Tel. 944037800 edo posta: monitoreak@asfedebi.eus

WWW.ASFEDEBI.EUS

